

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 1,4 igo ziren 2020ko urtarrilean

Produktu energetikoen esportazioak hirukoiztu egin dira eta produktu ez-energetikoenak % 6,6 murriztu dira

Euskal AEko **ondasunen esportazioak** % 1,4 igo ziren 2020ko urtarrilean urte arteko tasan, Eustatek emandako datuen arabera. Zenbatekoa 1.968,6 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete berean izandako 1.941,4 milioien aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioek % 234,0ko hazkundea izan zuten, eta *ez-energetikoenak* % 6,6 jaitsi ziren.

Bizkaia da portaera onena duen lurraldea, esportazioak % 14,5 hazi baitira; Gipuzkoan esportazioak % 8,8 jaitsi dira, eta Araban % 2,7.

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 5,9 egin zuten atzera, 1.573,8 milioi euroko zenbatekoarekin. Inportazio *energetikoak* % 0,3 igo ziren, eta *ez-energetikoak* % 8,2 jaitsi ziren.

Hiru lurraldeetan beheititu dira inportazioak, batez ere Gipuzkoan (% 19,7), eta ondoren Araban (-% 2,1) eta Bizkaian (-% 1,6).

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Urtarrila

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.941.439	1.968.561	1,4	1.673.157	1.573.842	-5,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	64.450	215.279	234,0	440.164	441.513	0,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.876.989	1.753.283	-6,6	1.232.993	1.132.329	-8,2
URTEKO METATUA	1.941.439	1.968.561	1,4	1.673.157	1.573.842	-5,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	64.450	215.279	234,0	440.164	441.513	0,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.876.989	1.753.283	-6,6	1.232.993	1.132.329	-8,2
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	633.513	616.479	-2,7	331.600	324.556	-2,1
URTEKO METATUA	633.513	616.479	-2,7	331.600	324.556	-2,1
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	684.629	783.820	14,5	949.348	934.506	-1,6
URTEKO METATUA	684.629	783.820	14,5	949.348	934.506	-1,6
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	623.297	568.263	-8,8	392.209	314.780	-19,7
URTEKO METATUA	623.297	568.263	-8,8	392.209	314.780	-19,7


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Jarduera-adar esportatzaileak (A86) aztertuz gero, ikusi egiten da *Ibilgailu motordunen* beherakada, % 7,2ko jaitsierarekin; aldiz, *Kokeriak eta petrolio finntzea* deritzon hazkundea hirukoiztu baino gehiago egin da, eta *Garraioko beste materialean*, berriz, % 30,1 egin da gora. *Siderurgiak* (-% 18,9), *Metalezko artikuluek* (-% 19,5) eta *Kautxuzko produktuek* (-% 2,2) ere behera egin dute.

Xehetasunetara joanez, urtarrilean, hamar muga-zergen partida nagusiek esportazioen % 47,5 bildu zituzten, 934,8 milioi euroko balio bateratuarekin; era askotako igoerak izan dituzte aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta *Petrolio-olio finduek* (% 278,8 eta 211,1 milioi), *10 pertsona baino*

gutxiagoko turismoek (% 1,2 eta 190,9 milioi) eta Trenbideetarako eta tranbia autopropulsauearako automotorrek (% 33,3 eta 55,2 milioi). Halaz ere, portzentajezko jaitsierak erregistratu dira 2,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafla eta tiretan, (-% 32,0 eta 28,8 milioi), Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobiletan (-% 20,5 eta 122,9 milioi), Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profiletan (-% 20,0 eta 29,9 milioi), Automobilentzako zati eta osagarrietan (-% 14,7 eta 136,4 milioi) eta Kautxuzko pneumatiko berrietan (-% 2,6 eta 84,6 milioi).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Hilabete honetan bost herrialde –Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Herbehereak– dira gure bezero nagusiak, Euskal AEko esportazio guztien % 54,6 (1.074,7 milioi) bereganatzen baitituzte. Horietako lau EB-28koak dira, eta erakunde horrek, 1.415,5 milioirekin, gure esportazioen % 71,9 biltzen ditu.

Inportazioak jarduera-adarren arabera aztertuz gero (A86), ikusten da ezen garrantzitsuenak, *Erauzketa- eta petrolio-industriak* izenekoak (guztizkoaren % 26,1), % 7,3ko igoera izan duela aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta ehuneko bera (% 7,3) hazi da *Ibilgailu motordunen fabrikazioa*. Aldiz, *Siderurgiako produktuek* % 20,1 egin dute atzera, eta *Erabilera orokorreko makineriak* % 3,5, lau garrantzitsuenak bakarrik kontuan hartzen baditugu.

Alemania da, hilabete honetan, gure ondasun-hornitzaile nagusia, guztira 204,1 milioirekin, ondoren Errusia 147,5 milioirekin, Frantzia (140,4 milioi), Txina (114,9 milioi) eta Italia (67,6 milioi).

Para más información:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Servicio de Prensa: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62